

Urteko/zikloko programazio didaktikoa  
 Programación didáctica anual/de ciclo

<b>ikastetxea:</b> <i>centro:</i>	URIBEKOSTABHI BHI	<b>kodea:</b> <i>código:</i>	015143
<b>etapa:</b> <i>etapa:</i>	DBH	<b>zikloa/maila:</b> <i>ciclo/nivel:</i>	3 DBH
<b>arloan/irakasgaia:</b> <i>área / materia:</i>	INGELESA		
<b>diziplina barruko oinarriko konpetentzia elkartuak</b> <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	1. Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia 2. Teknologiarako konpetentzia 3. Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia 4. Arterako konpetentzia 5. Konpetentzia motorra		
<b>irakasleak:</b> <i>profesorado:</i>	ANA ISABEL PALACIOS ROBERTO FERNÁNDEZ	<b>ikasturtea:</b> <i>curso:</i>	2016-17

*Zeharkako konpetentziak / Competencias transversales:*

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
3. Elkarbizitzarako konpetentzia.
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia.
5. Izaten ikasteko konpetentzia.

<b>helburuak</b> <i>objetivos</i>	<b>ebaluazio-irizpideak</b> <i>criterios de evaluación</i>
<p><b>Getting started</b></p> <p>1* Ahozko testu errazak, jendearen deskribapenari buruzkoak eta gelako jardueri buruzkoak, ulertzea ikaskuntza-zereginak betetzeko eta informazio zehatzak hautemateko.</p> <p>2* Ulermen- eta sorkuntza-prozedurei dagokienez, ingelesaren sistemari buruz hausnartzea, bereziki, idatziko azalpen-testuaren egitura eta aspektu gramatikal batzuk erreparasatzea: orainaldi bakuna eta iraunkorra, iraganaldi burutu bakuna, <i>used to</i>, adjetiboen konparazioak, moduzko adberbioak eta oinarriko eremu lexiko batzuk (ezaugarri geografikoak, lanbideak, garraiabideak, eguraldia eta ikasgelarekin loturiko hiztegia).</p>	<p>1- Ea hautematen dituen jendearen deskribapenari buruz- eta gelako jardueri buruzko testu argien eta laburren gaia eta ideia nagusiak.</p> <p>- Ea erabiltzen dituen hutsune-betetzeak eta informazio-hustuketak, ahozko testuen informazio espezifikoa lortzeko.</p> <p>- Ea entzuteko jarrera aktiboa ageri duen.</p> <p>2- Ea ikasitako lexikoa, sintaxia, ortografia eta puntuazio-marka egokiak erabiltzen dituen aurkezpen eta deskribapen pertsonalak adierazteko. Batez ere, idatziko azalpen-testuaren egitura eta aspektu gramatikal batzuk: orainaldi bakuna eta iraunkorra, iraganaldi burutu bakuna, <i>used to</i>, adjetiboen konparazioak, moduzko adberbioak eta oinarriko eremu lexiko batzuk (ezaugarri geografikoak, lanbideak, garraiabideak, eguraldia eta ikasgelarekin loturiko hiztegia).</p> <p>3 - Ea ezagutzen duen hainbat hizkuntzatan erabilgarria den hizkuntza-terminologia, eta</p>

<p>3* Norberaren ikaskuntza-prozesuei buruz, gero eta autonomia handiagoz, hausnartzea, bereziki, aurretiazko ezagutzak erabiltzea.</p>	<p>ezagutza hori erabilerari buruzko hausnarketa-jardueretan erabiltzen duen.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ea, testuak ulertzean eta idaztean, hizkuntza ezagutzak eta ortografia-arauak autonomia egokiz aplikatzen dituen., bereziki eremu lexiko batzuk (ezaugarri geografikoak, lanbideak,garraibideak, eguraldia eta hainbat ezagutza gramatikala (aditza: to be/have got, orainaldi bakuna eta iraganaldi burutu bakuna).</li> <li>- Ea hainbat euskarritan dauden hiztegiak eta eskolako beste kontsulta-lan batzuk kontuan hartuta, hizkuntzari buruzko informazioa lortzen duen, gero eta autonomia handiagoz.</li> <li>- Ea akatsak ikaskuntza-prozesuaren partetzat hartzen eta onartzen dituen.</li> <li>- Ea ezagutzen dituen ikaskuntzan aurrera egiteko dituen gaitasunak eta zailtasunak.</li> <li>- Ea alderatzen eta aztertzen dituen ikasturtean landutako zenbait hizkuntza-prozedura; prozedura horiek, gainera, helburu bera dute hizkuntza guztietan.</li> </ul>
<p><b>1.UNITATEA: Achievements</b></p> <p>1* Ahozko elkarrizketa errazak ulertzea, pertsonaia ospetsu batzuen izandako esperientziei buruzkoak eta lan-elkarrizketak, informazio zehatza eta orokorra lortzeko.</p> <p>2* Ahozko mezuetan emandako informazioa ordenan jartzea eta egituratzea. Baliabide ez-linguistikoen laguntzaz (ahotsaren tonua, marrazki testuingurugileak, gaiari buruzko aurre ezagutza, testuingurua...) esanahiak identifikatzea.</p> <p>3* Idatzizko azalpen testu errazak ulertzea, lanbideekin, pertsonai famatuekin eta gazte arruntekin lotutakoak, bereziki musika-talde baten inguruan eta eskauten historioaren inguruan. Ikaskuntza-zereginak beteko dira, eta, informazio zehatzak eta ideia orokorrak lortuko dira.</p>	<p>1- Ea hautematen dituen pertsonaia ospetsu baten izandako esperientziei buruzko testuetatik eta lan-elkarrizketatik berariazko informazioa eta informazio orokorra..</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ea erabiltzen dituen, besteak beste, eskemak, taulak, hutsune-betetzeak eta informazio-hustuketak, ahozko testuen informazio espezifikoak lortzeko.</li> <li>- Ea entzuteko jarrera aktiboa ageri duen.</li> </ul> <p>2- Ea informazio garrantzitsua autonomia apur batez bilatzen eta hautatzen duen, hainbat iturri erabiliz: analogikoak, ikus-entzunezkoak eta digitalak.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Ea koherentzia, zuzentasun, hitz-jario eta argitasun egokia erabiliz iraganeko esperientziak adierazten dituen, eta ea horretarako, zenbait alderdi kontuan hartzen dituen:egokitasuna, tonua, keinuak, gorputzaren jarrera eta kortesia-arauak adierazterakoan.</li> <li>- Ea zeregina planifikatzean eta egitean behar besteko autonomia duen.</li> </ul> <p>3 - Ea identifikatzen duen testuaren esanahi orokorra, eta, halaber, ea bereizten dituen ideia nagusiak eta bigarren mailakoak, azalpen testu errazetan, lanbide eta pertsonai famatuekin lotutako testuetan, bereziki musika-talde baten inguruko eta eskauten historioaren inguruko testu idatzietan.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ea bere mailarako luzera egokia duten testuak autonomiaz irakurtzen dituen; testu horiek, hain zuzen, hainbat euskarritan daude eta askotariko helburuak dituzte.</li> <li>- Ea bereizten dituen informazioa eta iritzia.</li> </ul>

<p>4*Idatziz artikulua informatzailea erraza, gertaera bat azalduz, autonomiaz adieraztea, koherentziaz eta zuzen eskatutako jarduerari erantzuteko.</p>	<p>4. - Ea helburua lortzeko informazio esanguratsua bilatzen, hautatzen eta prozesatzen duen, eta, horrez gainera, hainbat iturri baliatzen dituen.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ea erabiltzen dituen informazio- eta komunikazio-teknologiak, bai informazioa lortzeko eta antolatzeko, bai azken testua idazteko eta zuzentzeko.</li> <li>- Ea artikulua informatzailea argiak, garbiak eta ordenatuak, gertaera bat azalduz, aurkezten dituen.</li> <li>- Ea bereizten dituen informazioa eta iritzia.</li> </ul>
<p><b>2.UNITATEA: What at Journey!</b></p> <p>1.* Bidaiei buruzko testu laburrak edota luzera ertainekoak, testuinguratuta, eta ondo egitaratuta, genero desberdinetakoak eta euskarri desberdinetakoak argi eta abiadura ertainaz esandakoa, ulertzea eta interpretatzea. Testu horiek, ohiko gai zehatzen gainekoak, ikasle-esperientziatik hurbilak, komunikabidekoak . Proposatutako zeregina egiteko aipatutako testu mota hauen esanahi orokorra eta ideia nagusiak ulertzea eta interpretatzea, eta informazio egokia aukeratzea, baldin eta baldintza akustikoak egokiak badira eta esandakoa berriro ere entzun ahal bada.</p> <p>2. *Idatzitako testu, gero eta luzeagoak eta lexiko eta egitura gero eta aberatsagoak izanda, modu kritiko batez, ulertzea eta interpretatzea, informazio orokorra, ideia nagusiak eta bigarren mailako ideiak hartuz. Testu hauek euskarri desberdinetan egongo dira eta landutako generotakoak, harreman pertsonalei, komunikabidei eta ikas prozesuari dagozkienak izango dira.</p> <p>3.* Informazio zehatza eta nabarmena aurkitu eta aukeratzea, irakurketarako helburuari erantzunez.</p> <p>4. * Planifikatu ondoren eta autonomia apur batez, helburu desberdinetako idatzitako testu gero eta luzeagoak sortzea euskarri desberdinetan, lexiko eta egitura gero eta aberatsagoak erabiliz. Testu horiek, hainbat generotakoak eta eremu desberdinekoak-harreman-personalak, komunikabidekoak eta ikastekoak- izango dira eta egokitasun, koherentzia, kohesio eta zuzentasunaren maila onargarria erakutsiz ekoiztuko dira</p>	<p>1. - Ea ahozko elkarrizketa errazak, bidaiekin eta txangoekin lotutakoak, ulertzen dituen eta informazio zehatza eta orokorra lortzen duen.</p> <p>2. - Ea idatzizko narrazio errazak, pertsonai famatuen biografiak eta bidaiekin, esploratzaileekin eta hegazkinen historiarekin lotutakoak, ulertzen dituen eta informazio zehatza eta orokorra lortzen duen.</p> <p>3. - Ea jardura akademikoetan sortutako informazioa argi ulertzen duen; eta, horretarako, ea informazioaren eta komunikazioaren baliabideak eta teknologiak erabiltzen dituen.</p> <p>4. - Ea, sortu beharreko narrazioaren sekuentzia arketipikoari jarraiki, informazioa antolatzeko eskema egiten duen.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ea aurrez definitutako asmoa edo helburua egoki adierazten duen.</li> <li>- Ea erabiltzen dituen autoebaluazio- eta autozuzenketa-estrategiak, landutako testu idatzien sorkuntza arautzeko, eta ea autonomia egokia duen norberaren testua berrikustean eta hobetzean.</li> <li>- Ea idatzizko narrazio errazak autonomiaz adierazten dituen, bereziki, iraganeko gertaeren ingurukoak, koherentziaz eta zuzen, emandako ereduari erreparatuz.</li> </ul>

<p><b>4.UNITATEA: Home and Away</b></p> <p>1.* Ahozko testu laburrak eta guztiz, testuinguratuta, genero desberdinetakoak eta euskarri desberdinetakoak, egitura sinpleekin eta lexiko arruntarekin egindakoak, argi eta garbi eta astiro ekoiztuta, ulertzea eta interpretatzea. Testu horiek, ohiko gai zehatzen gainekoak, ikasle-esperientziatik hurbilak, komunikabidekoak eta bizitza akademikoak izango dira. Proposatutako zeregina egiteko aipatutako testu mota hauen esanahi orokorra eta ideia nagusiak ulertzea eta interpretatzea, eta informazio egokia aukeratzea, baldin eta baldintza akustikoak onak badira, esandakoa berriro ere entzun edo informazioa eskatu ahal bada edota testuinguruaz edo ikus-laguntzaz baliatzen bada.</p> <p>2. *Idatzitako testu errazak, laburrak eta ondo egitaratutakoak, lexiko arruntaz sortutakoak, modu kritiko batez ulertzea eta interpretatzea informazio orokorra, ideia nagusiak eta bigarren mailako ideiak hartuz. Testu hauek euskarri desberdinetan egongo dira eta eta landutako generotakoak, harreman pertsonalei, komunikabidei eta ikas prozesuari dagozkienak izango dira.</p> <p>3*. Informazio zehatza eta nabarmena aurkitu eta aukeratzea, irakurketarako helburuari erantzunez.</p> <p>4.* Planifikatu ondoren eta autonomia apur batez helburu desberdinetako idatzitako testu errazak, laburrak eta ondo egitaratuak sortzea euskarri desberdinetan, lexiko arrunta erabiliz. Testu horiek, hainbat generotakoak eta, ohiko jarduera akademiko eta interes pertsonalei buruzkoak izango dira eta ekoizte prozesuaren pausuei jarraituz eta egokitasun, koherentzia, kohesio eta zuzentasunaren maila onargarria erakutsiz idatziko dira.</p>	<p>1. - Ea ahozko elkarrizketa errazak, helbideekin eta etorkizunerako planekin lotutakoak, ulertzen dituen, informazio zehatza eta orokorra lortuz. - Ea erabiltzen dituen, besteak beste, eskemak, taulak, hutsune-betetzeak eta informazio-hustuketak, ahozko testuen informazio espezifikoa lortzeko.</p> <p>2. - Ea idatzizko informazio- eta iritzi- testu errazak, hirietako bizitzarekin eta hainbat atzerriko mugarri garrantzitsuenekin lotutakoak, ulertzen dituen, informazio zehatza eta orokorra lortuz. - Ea erabiltzen dituen paperean nahiz euskarri digitalean dauden kontsulta-materialak informazioa bilatzeko, dudak argitzeko eta hipotesiak berresteko.</p> <p>3. - Ea jarduera akademikoetan idatzitako testuetatik informazio zehatza eta nagusia aurkitu eta aukeratzen duen</p> <p>4. - Ea sortu beharreko testuaren sekuentzia arketipikoari jarraiki, informazioa antolatzeke eskema egiten duen. - Ea aurrez definitutako asmoa edo helburua egoki adierazten duen. - Ea hiri baten deskribapen argia, garbia eta ordenatua aurkezten duen.</p>

<p><b>5.UNITATEA: Being a Friend</b></p> <p>1. Ahozko testu laburrak edota luzera ertainekoak, testuinguratuta, eta ondo egitaratuta, genero desberdinetakoak eta euskarri desberdinetakoak argi eta abiadura ertainaz esandakoa, ulertzea eta interpretatzea. Testu horiek, ohiko gai zehatzen gainekoak, ikasle-esperientziatik hurbilak, komunikabidekoak eta bizitza akademikoak izango dira. Proposatutako zeregina egiteko aipatutako testu mota hauen esanahi orokorra eta ideia nagusiak ulertzea eta interpretatzea, eta informazio egokia aukeratzea, baldin eta baldintza akustikoak egokiak badira eta esandakoa berriro ere entzun ahal bada.</p> <p>2. *Ohiko egoera interaktiboetan, gero eta autonomia handiagoz, parte hartzea truke komunikatiboaren arauak errespetatuz.</p> <p>3. * Informazio zehatza eta nabarmena aurkitu eta aukeratzea, irakurketarako helburuari erantzunez.</p> <p>4.*Planifikatu ondoren eta autonomia apur batez, helburu desberdinetako idatzitako testu gero eta luzeagoak sortzea euskarri desberdinetan, lexiko eta egitura gero eta aberatsagoak erabiliz. Testu horiek, hainbat generotakoak eta eremu desberdinekoak- harreman-personalak, komunikabidekoak eta ikastekoak- izango dira eta egokitasun, koherentzia, kohesio eta zuzentasunaren maila onargarria erakutsiz ekoiztuko dira.</p>	<p>.</p> <p>1. - Ea ahozko elkarrizketa errazak, emozioei eta eskolako arazoei buruzkoak, ulertzen dituen, informazio orokorra eta zehatza lortuz. - Ea erabiltzen dituen, besteak beste, eskemak, taulak, hutsune-betetzeak eta informazio-hustuketak, ahozko testuen informazio espezifikoak lortzeko. - Ea entzuteko jarrera aktiboa ageri duen.</p> <p>2. - Ea modu naturalean esku hartzen duen, eta bere ikuspegia argudiatuz azaltzen duen. - Ea gezurtatzen dituen besteen argudioak. - Ea dauden ikuspuntuak alderatzen dituen eta berea berrikusten duen. - Ea arazo pertsonalekin eta irtenbide posibleekin lotutako elkarrizketa errazetan aktiboki parte hartzen duen.</p> <p>3- Ea informazio zehatza eta nagusia aurkitu eta aukeratzen duen erabiltzen dituen testuetatik</p> <p>4. - Ea sortu beharreko argudio-testuaren sekuentzia arketipikoari jarraiki, informazioa antolatzeke eskema egiten duen. - Ea erabiltzen dituen ideien barne-kohesioa lortzeko hizkuntza-elementuak: anafarak, lokailuak, puntuazio-markak. - Ea argudio-testu errazak, aholkuak eskatzeko eta emateko egunkarirako gutun errazak, garbiak eta ordenatuak aurkezten dituen.</p>
<p><b>6.UNITATEA: A Plate of Food</b></p> <p>1. *Ahozko testu laburrak edota luzera ertainekoak, testuinguratuta, eta ondo egitaratuta, genero desberdinetakoak eta euskarri desberdinetakoak argi eta abiadura ertainaz esandakoa, ulertzea eta interpretatzea. Testu horiek, ohiko gai zehatzen gainekoak, ikasle-esperientziatik hurbilak, komunikabidekoak eta bizitza akademikoak izango dira. Proposatutako zeregina egiteko aipatutako testu mota hauen esanahi orokorra eta ideia nagusiak ulertzea eta interpretatzea, eta informazio egokia aukeratzea, baldin eta baldintza akustikoak egokiak badira eta esandakoa berriro ere entzun ahal bada.</p>	<p>1- Ea hautematen duen informazio egokia, behar bezala entzuteko. - Ea hautematen dituen janariekin eta jatetxeekin lotutako ahozko testu argien eta laburren gaia eta ideia nagusiak. - Ea entzuteko jarrera aktiboa ageri duen.</p>

<p>2. *Ohiko egoera interaktiboetan, gero eta autonomia handiagoz, parte hartzea truke komunikatiboaren arauak errespetatuz.</p> <p>3. *Idatzitako testu, gero eta luzeagoak eta lexiko eta egitura gero eta aberatsagoak izanda, modu kritiko batez, ulertzea eta interpretatzea, informazio orokorra, ideia nagusiak eta bigarren mailako ideiak hartuz. Testu hauek euskarri desberdinetan egongo dira eta landutako generotakoak, harreman pertsonalei, komunikabidei eta ikas prozesuari dagozkienak izango dira.</p> <p>4.*Planifikatu ondoren eta autonomia apur batez, helburu desberdinetako idatzitako testu gero eta luzeagoak sortzea euskarri desberdinetan, lexiko eta egitura gero eta aberatsagoak erabiliz. Testu horiek, hainbat generotakoak eta eremu desberdinekoak- harreman-personalak, komunikabidekoak eta ikastekoak- izango dira eta egokitasun, koherentzia, kohesio eta zuzentasunaren maila onargarria erakutsiz ekoiztuko dira.</p>	<p>2. - Ea ahozko elkarrekintzetan parte-hartze aktiboa izaten duen, batez ere, janariari buruz hitz egiterakoan eta jabetzeko janaria eskatzearen eta lehentasunen gaineko simulazio batean parte hartzerakoan.</p> <p>- Ea errespetatzen dituen elkarrizketa arautzen duten gizarte-komunikazioko arauak.</p> <p>3. - Ea identifikatzen duen testuaren esanahi orokorra, eta, halaber, ea lortzen dituen ideia nagusiak eta informazio espezifikoak aldizkari-artikuluetan eta informazio-testuetan, janariekin, jateko ohiturekin, ospakizun-janariekin eta osasunarekin lotutako testu idatzietan.</p> <p>- Ea bereizten dituen informazioa eta iritzia</p> <p>4. - Ea sortu beharreko iritzi-testuaren sekuentzia arketipikoari jarraiki, informazioa antolatzeko eskema egiten duen.</p> <p>- Ea gero eta landuagoa den sintaxia, eta ortografia eta puntuazio-marka egokiak erabiltzen dituen, eta testuinguruaren arabera egokitutako lexikoa ere bai.</p> <p>- Ea jabetxe bati buruzko aipamena aurkezten duen, emandako ereduari erreparatuz</p>
<p><b>8.UNITATEA: Fighting Crime</b></p> <p>1.* Ahozko testu laburrak edota luzera ertainekoak, testuinguratuta, eta ondo egitaratuta, genero desberdinetakoak eta euskarri desberdinetakoak argi eta abiadura ertainaz esandakoa, ulertzea eta interpretatzea. Testu horiek, ohiko gai zehatzen gainekoak, ikasle-esperientziatik hurbilak, komunikabidekoak eta bizitza akademikoak izango dira. Proposatutako zeregina egiteko aipatutako testu mota hauen esanahi orokorra eta ideia nagusiak ulertzea eta interpretatzea, eta informazio egokia aukeratzea, baldin eta baldintza akustikoak egokiak badira eta esandakoa berriro ere entzun ahal bada.</p> <p>2. *Ohiko egoera interaktiboetan, gero eta autonomia handiagoz, parte hartzea truke komunikatiboaren arauak errespetatuz.</p>	<p>1. - Ea hautematen dituen legezko jarduerekin eta jarduera ilegalekin lotura duten ahozko testu argien eta laburren ideia nagusiak eta informazio berariazkoa.</p> <p>- Ea erabiltzen dituen, besteak beste, eskemak, taulak, hutsune-betetzeak eta informazio-hustuketak, ahozko testuen informazio espezifikoak lortzeko.</p> <p>- Ea komunikazio-estrategiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzen dituen.</p> <p>- Ea bidegabekeriekin lotutako hitzen esanahiarekin eta larrialdi-egoerekin lotutako elkarrizketa errazetan aktiboki parte hartzen duen.</p> <p>- Ea errespetatzen dituen elkarrizketa arautzen duten gizarte-komunikazioko arauak.</p>

<p>3.* Idatzitako testu, gero eta luzeagoak eta lexiko eta egitura gero eta aberatsagoak izanda, modu kritiko batez, ulertzea eta interpretatzea, informazio orokorra, ideia nagusiak eta bigarren mailako ideiak hartuz</p> <p>4. * Planifikatu ondoren eta autonomia apur batez, helburu desberdinetako idatzitako testu gero eta luzeagoak sortzea euskarri desberdinetan, lexiko eta egitura gero eta aberatsagoak erabiliz. Testu horiek, hainbat generotakoak eta eremu desberdinekoak-harreman-personalak, komunikabidekoak eta ikastekoak- izango dira eta egokitasun, koherentzia, kohesio eta zuzentasunaren maila onargarria erakutsiz ekoiztuko dira.</p>	<p>3. - Ea identifikatzen duen testuaren esanahi orokorra eta berariazko informazioa egunkari-artikulu errazetan, bidegabekeriekin lotutakoetan, bai teknologia berriekin lotutakoetan bai duela milaka urte gertatutako hilketetan.</p> <p>- Ea bereizten dituen informazioa eta iritzia.</p> <p>- Ea erabiltzen dituen azalpenei dagozkien oinarriko arauak.</p> <p>- Ea gero eta landuagoa den sintaxia, eta ortografia eta puntuazio-marka egokiak erabiltzen dituen, eta testuinguruaren arabera egokitutako lexikoa ere bai.</p> <p>- Ea erabiltzen dituen ideien barne-kohesioa lortzeko hizkuntza-elementuak: anafarak, lokailuak eta puntuazio-markak.</p> <p>- Ea egunkari-artikulu erraza, bidebagekeriekin lotutakoa, autonomiaz idazten duen.</p>
---	--

**EDUKIEN SEKUENTZIA** [denbora-tarteka, unitate didaktikoka, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta,...] **SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS** [organización en periodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje ]

1go Ebaluazioa	2ren Ebaluazioa	3rren Ebaluazioa
<p>Starting Unit</p> <p>UNIT 1: Achievements</p> <p>UNIT 2 : What a Journey!</p> <p>Arazo Egoera: Hero</p>	<p>UNIT 4: Home and Away</p> <p>UNIT 6: Being a Friend</p> <p>Arazo Egoera</p>	<p>UNIT 6: A Plate of Food</p> <p>UNIT 8: Fighting Crime</p> <p>Arazo egoera</p>

**METODOLOGIA** [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik]  
**METODOLOGÍA** [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado desde una perspectiva inclusiva].

**Testuliburua:** Advanced English in Use 3, Student Book & Workbook, Burlington argitaletxea.

**Metodologia** inklusiboa, anitza eta zabala aplikatuko dugu.

**Talde lana** garrantzitsua proiektuak bideratzeko

Gaiak malgultasun eta aniztasunetik aurkeztuko ditugu.

Hizkuntzaren lau oinarrizko arloak landuko dira: entzumena, ahoskera, idazkera eta irakurmena.

Ahozko eta idatzizko ariketak erabiliko dira azalpenekin batera ikasleak gero eta autonomia gehiago lor dezan.

Etterako lanak erabiliko dira edukiak indartzeko eta akats arruntak zuzentzeko.

Ikasleen partizipazioa guztiz beharrezkoa izango da.

Gure Hobekuntza Planean eta [Hizkuntza Proiektuan](#) adierazten den bezala, irakurmena lantzeko berenberegiko atazak egingo dira. Ataza horiek prestatzeko formakuntza lantsaio batzuk antolatuko dira, eta bertan landutakoa 3. ebaluaketan zehar ikasgeletan gauzatuko da.

IKT Baliabideen erabilera: [Gelako sitea](#), [Google Classroom](#) eta Gelako [Google+ Komunitatea](#) erabiliko dira lanak eta proiektuak bideratzeko

<b>EBALUAZIO-TRESNAK</b> [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...] <b>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN</b> [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico ]	<b>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK</b> [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa] <b>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN</b> [peso y valor de cada instrumento de evaluación]
Etterakolanak	<b>%10</b>
-Gelako lana eta jarrera. -Gelako behaketa.	<b>%10</b>
- Ebaluazioan zehar egindako probak eta proiektuak <ul style="list-style-type: none"> <li>● Writing</li> <li>● Reading</li> <li>● Oral skills</li> <li>● Grammar &amp; Vocabulary</li> </ul>	<b>%80</b>
Aurreko hiru kategorietan <b>%30 gutxienez</b> atera behar da ebaluazioa gainditu ahal izateko.	



**EBALUAZIOAREN ONDORIOAK** [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...] **CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN** [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación ]

ERREKUPERAZIOAK	
Ebaluazio bat	Aurreko ikasturtekoa
1. Hurrengo ebaluaketa gaindituz gero, gaindituztat joko dugu aurreko ebaluaketa guztiak. 2. Errefortzurako ariketak egin beharko ditu.	1. Errefortzurako ariketak egin beharko ditu. 2. Lehenengo eta/edo 2.ebaluaketa gaindituz gero, aurreko kurtsokoa berreskuratuko du automatikoki. 3. 2. Ebaluaketan oraindik ez badu errekupeatu: - Azterketa berezi bat egingo du 3. hiruhilabetekoaren hasieran, kurtsosan zehar egindako errefortzuko ariketetan oinarrituta. - Azterketa hori gainditzen ez badu, dagokion mailaren ezohiko azterketa egin ahal izango du Ekainean. -Ezohiko azterketan emaitzarik altuena "5" bat izango da.
Ez aurkeztuak	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Maila berdineko azterketa egingo zaie.</li> <li>- Irakasleak erabakiko du noiz egin.</li> <li>- Azterketa pertsonalizaturik ez dira egingo.</li> </ul>	
Lanak	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Epez kanpo emango diren lanak zein idazlanak zuzenduko dira, baina nota baxuagoa izango da (20% gutxiago).</li> </ul>	

**OHARRAK OBSERVACIONES**

\*Ezagutza minimoak asteriskoaren bitartez zehaztuta daude.